# Jakinbai buletin@

LNKi2020/3.buletina MARTXOA




## 2020 KATALOGOA

Hemen

# #LHpartekatu

## Covid 19a dela eta elkarri materiala partekatzeko EGITASMOA

**Bidali zure materiala**

**jakinbai@jakinbai.eus**

- Aurkezpenak
- Jarduerak
- Bideo-azalpenak
- Infografiak, mapa mentalak
- Irudi bidezkoa azalpenak
- Jolasak



***LH eredugarri bat gara, elkarrekin hobeak gara***

# Jakinbai buletin@

LNKi2020/3.buletina MARTXOA

# #LHpartekatu

## ARGITARAPENAK: jakinbai.eus web gunean

### COVID 19 eta lan egoera

COVID 19 eta lan egoera aztertzen dituen bideo sorta. Bideo hauetan enpresak eta lana antolatzeko Gobernuak hartu dituen neurriak azaltzen dira. Zehazki egoera hauek ulertzeko bideoak dira: Telelana, ERTE, ERE, langabezia, FOGASA eta antzeko egoerak. Besteren konturako langileei eta autonomoei nola eragiten dieten aztertzen da. Material hau behin behinean partekatu da , #LHpartekatu ekimenerako. Eskerrik asko ekarpen interesgarri honengatik.

Jakinbai Laneki — 2020/03/20

### COVID 19 eta lan egoera- ariketak

COVID 19 eta lan egoera aztertzen dituen bideo sortaren ariketak. Bideoa ikusi eta ondoren bideo horri dagokion ariketa sorta egin. Bideo hauetan enpresak eta lana antolatzeko Gobernuak hartu dituen neurriak azaltzen dira. Zehazki egoera hauek ulertzeko bideoak dira: Telelana, ERTE, ERE, langabezia, FOGASA eta antzeko egoerak. Besteren konturako langileei eta autonomoei nola eragiten dieten aztertzen da. Material hau behin behinean partekatu da , #LHpartekatu ekimenerako. Eskerrik asko ekarpen interesgarri honengatik.

Jakinbai Laneki — 2020/03/23

### COVID 19a dela eta Familia eta lana uztartzeko neurri bereziak



Euskadi irratiko Faktoria saioaren lotura duzue hemen. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak laguntza ildo berriak sortu ditu, gizarte larrialdiei erantzuteko. Kontziliazio laguntzak emango zaizkie 14 urtera arteko haurren gurasoei. Lide Amilibia Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordeak hitz egin du Euskadi Irratiko 'Faktoria'n. Material hau behin behinean partekatu da, #LHpartekatu ekimenerako. Eskerrik asko ekarpen interesgarri honengatik.

Jakinbai Laneki — 2020/03/26

### COVID 19a dela eta Autonomoen egoera berezia



Euskadi irratiko Faktoria saioaren lotura duzue hemen. Koronabirusagatik ezarritako alarma egoerak autonomo asko jarduera eten beharrean utzi ditu, eta ohiko gastu askori aurre egiteko zailtasun handiekin. Autonomoen egoera berezia aztertzen da irratsaio honetan. Autonomoak eta abokatu bat elkarrizketatzen dira. Material hau behin behinean partekatu da , #LHpartekatu ekimenerako. Eskerrik asko ekarpen interesgarri honengatik.

Jakinbai Laneki — 2020/03/26

*LH eredugarri bat gara, elkarrekin hobeak gara*

LANEKI
jknb+
ikasLAN Araba
ikasLAN Bizkaia
ikasLAN Gipuzkoa
HETEL
Fp LANBIDE HEZIKETA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Elkargune kutxa FUNDAZIOA
ORAIN GIPUZKOA
Bizkaia foru aldundia diputación foral
araba álava Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
OÑATI
Bergarako Udala
Buruntzaldeko Udalak
Irizar
AMPO
elay
Orona fundazioa
Tknika
irale
bai euskarari zerbitzua eta lana euskaraz

## ENTITATEENTZAT AURKEZPEN EKITALDIAK ETXETIK

EUSKARALDIA

### Entitateentzako lan-saio praktikoak bertan behera geratu direnez…

**SAIO BIRTUALA ANTOLATU DA**

-Zalantzak eta galderak argitzeko

-Beste entitateen estrategiak eta egiteko moduak ezagutzeko

**Eguna**: apirilaren 3a
**Ordua**: 10:00-12:00
**Lekua**: bideo-deia (https://meet.jit.si/EuskaraldiaEntitateentzakoSaioPraktikoa)

**Saiora etortzeko, eman ezazue izena**
hemen: https://forms.gle/XSwLpaZK2ao188xV6

## ALBISTEAK

## HITZARMEN EREDUA

### Euskaragileak




Hitzarmen-eredua (.doc)

Enpresen eta ikastetxeen arteko HITZARMEN EREDUA argitaratu dute, hemen

## Aditu HIZKETA EZAGUTZAILEA

### Elhuyar fundazioa

Bideoak eta audioak testu bihurtzeko tresna. Albistea hemen

**Klik soil bat ahotsa testu bihurtzeko**

Elhuyar fundazioak Aditu hizketa ezagutzailea sortu eta kaleratu du: euskarazko eta gaztelaniazko audioak eta bideoak automatikoki transkribatzen eta azpidazten ditu. Adituren teknologia oinarri izan daiteke euskara sartzeko pertsonen eta makinen arteko elkarrekintza ahalbidetzen duten gailuetan.

